

## 4. GAIA: “Jaraunspena onartzea edo zapuztea”

### I.-ARAUDIA

**Kode zibila**

### II.-ONARPENA ETA ZAPUZKETA: EZAUGARRI OROKORRAK

Onartzea edo zapuztea, teknikoki, delazio-eskubidea egikaritzea dira. Oinordekoak jaraunsele edo legatudun izan nahi duela adieraztea da onartzea, edo hark zenbait egintza egitea, zeinaren ondorioz legeak jaraunsetzat hartzen baitu. Zapuztea, aldiz, jaraunspenari uko egitea da.

Bien arteko alde nagusia zera da: onartzea esanbidez edo isilbidez egin daiteke, eta zapuzketak, berriz, esanbidezko adierazpen formala eskatzen du. Hala ere, badituzte hainbat ezaugarri komun:

(1) **Borondatez eta askatasunez egindako egintzak dira:** *la aceptación y repudiación de la herencia son actos enteramente voluntarios y libres* (kzeko 988. art.). Ondorioz, eta deituak bat baino gehiago badira, bakoitzak nahi duen aukera hartuko du: *cuando fueren varios los herederos llamados a la herencia, podrán los unos aceptarla y los otros repudiarla. De igual libertad gozará cada uno de los herederos para aceptarla pura y simplemente o a beneficio de inventario* (kzeko 1007. art.).

(2) **Alde bakarreko deklarazioak** dira, hala onarpena esanbidez deklaratzeko nola jaraunspena zapuztea; alegia, beste interesdunek ez dute parte hartzen eta ez dago inori jakinarazi beharrik ere.

(3) **Egintza horiek errebokaekinak dira:** *la aceptación y la repudiación de la herencia, una vez hechas, son irrevocables, y no podrán ser impugnadas sino cuando adoleciesen de algunos de los vicios que anulan el consentimiento, o apareciese un testamento desconocido* (kzeko 997. art.). Beraz, delazio-eskubidea egikaritu eta jaraunspena onartu edo zapuztuz gero, ezin da berriz egikaritu, iraungi egiten baita. Arau horrek, praktikan, badu garrantzi handia; izan ere, isilbidez onartutako jaraunspenak ere errebokaekinak dira, eta maiz gertatzen da isilbidez onartzea, eta jaraunspenak uste baino

zor gehiago dituela konturatu eta gero, zapuzteko eskatzea; noski, baliorik gabea izango da zapuzketa hori. Arauaren bigarren zatian dagokionez, *inter vivos* egindako egintzak direnez, negozio juridiko horiei buruzko teoria orokorra —adostasunari buruzkoa— aplikatu beharko da. Kontuan izan adostasuna deuseza egiten duten akatsak kontratuei buruzko araudian daudela jasota eta hemen alde bakarreko egintzei buruz ari garela. Bigarren kausa zera da: baliozko azken borondate-adierazpen berri bat topatu eta itxurazko delazio-eskubidea agerian jartzea; kasu horietan, kontuan hartu beharko dira Kodeko 1009. artikulua ezarritako irizpideak: *el que es llamado a una misma herencia por testamento y abintestato, y la repudia por el primer título, se entiende haberla repudiado por los dos. Repudiándola como heredero abintestato y sin noticia de su título testamentario, podrá todavía aceptarla por éste.*

(4) **Ordezkeri bidez egin daitezke**, horretarako ahalorderik baldin badu (κzeko 1713. art.).

(5) **Adierazpena, izaeraz, zatiezina da** (*hereditas pro parte adiri nequit*) eta ez da onartzen elementurik eranstea, bestela deuseza izango baita: *la aceptación o la repudiación de la herencia no podrá hacerse en parte, a plazo, ni condicionalmente* (κzeko 990. art.).

(6) **Delazioa dagoela ziurra bada bakarrik egin daitezke**: *nadie podrá aceptar ni repudiar sin estar cierto de la muerte de la persona a quien haya de heredar y de su derecho a la herencia* (κzeko 991. art.). Alde batetik, kausatzailea hil eta, ondorioz, oinordetza ireki bada; eta, bestetik, ziurra bada oinordetzara deitua izan dela jaraunse edo legatadun moduan eta, beraz, delazioa badagoela. Kontuan izan, gainera, egikaritu gabe egon behar duela delazioak, behin delazio-eskubidea baliarazi ostean ez baitago berriz onartzerik edo zapuzterik.

(7) **Atzeraeragina dute**: *los efectos de la aceptación y de la repudiación se retrotraen siempre al momento de la muerte de la persona a quien se hereda* (κzeko 989. art.).

Onartzeko edo zapuzteko, **bi epealdi** bereizten dira:

(1) Lehenbizko egunetan, deitua ezin da behartu jaraunspena onartzera edo zapuztera: *hasta pasados nueve días después de la muerte de aquél de cuya herencia se trate, no podrá intentarse acción contra el heredero para que acepte o repudie* (κzeko 1004. art.).

(2) Gero, norbaitek hala eskatuz gero (*interpellatio*), epaileak erabakiko du zein epe izango duen deituak jaraunspena onartzeko edo zapuzteko (*interrogatio in iure*). Hain zuzen, Kodeko 1005. artikulua zera dio: *instando, en juicio, un tercer interesado para que el heredero acepte o repudie, deberá el Juez señalar a éste un término, que no pase de treinta días, para que haga su declaración; apercibido de que,*

*si no lo hace, se tendrá la herencia por aceptada.* Normalean, bestelako eztabaidarik ez baldin badago, borondatezko jurisdikzio bidez bideratuko da. Esaterako, hartzekodun bati edo beste nolabaiteko interesa edo onura-ustea (*expectativa*) duen bati -legatudunari, esaterako- interesatzen zaio jakitea lehenbailehen nor den jaraunsea, eta, onartzen badu, inbentario-onuraren arabera onartzen duen ala ez.

Esaten da, inbentario-onuraren arabera onartzeko direla epealdi horiek bereziki; izan ere, onartze soila edo zapuzketa soila egin daiteke jaraunspena erreklamatzeko eskubidea preskribatu bitartean, hots, 30 urteko preskripzio epean. Horixe ondorioztatzen da Kode Zibileko 1005. artikulutik (zerbait esatekotan, inbentario-onuraren arabera onartzen duela esan behar du, bestela uste baita onartze soila dagoela) eta 1016. *in fine* artikulutik: *mientras no prescriba la acción para reclamar la herencia*. Hala ere, 30 urteko preskripzio epea dago, bai puru eta sinplekin onartzeko, baita inbentario-onuraz baliatzeko ere, arau orokor gisa.

AGE 1985/11/15 [RAJ 5611]: “La simple aceptación o repudiación de herencia, habida cuenta del contenido de los arts. 1005 y 1016 *in fine*, no está sujeta a ningún otro plazo que no sea el de prescripción del derecho a reclamar la herencia o derecho de petición”.

Bestalde, legeak ez du jaraunspena erreklamatzeko epea esanbidez ezarri. Jurisprudenzian, hasierako interpretazioak akzio pertsonaltzat hartu eta adierazi zuen epea 15 urte zirela (*ex* KZeko 1964. art.; AGE 1928-7-26 [Jurisprudencia Civil 145. zb.]); geroko beste interpretazioak, berriz, akzioa izaeraz erreala dela erabaki eta adierazi du epea 30 urte dela (*ex* KZeko 1963. art.; AGE 1971/12/23 [RAJ 5401] eta 1987/6/2 [RAJ 4024]). Jaraunspena erreklamatzeko, nahitaezkoa da lehenik hura onartzea; baina, isilbidez onartzea posible denez eta akzioa egikaritzeak isilbidezko onartzea berekin dakarrenez, logikoa da jaraunspena eskatzeko akzioak adina irautea onartzeko epeak ere.

### **III.-JARAUNSPENA ONARTZEKO MODUAK**

Jaraunspena onartzeko moduak **sailkatzeko**, Kode Zibileko 998 eta 999.1. artikuluetara jo behar da: *la herencia podrá ser aceptada pura y simplemente, o a beneficio de inventario; la aceptación pura y simple puede ser expresa o tácita*. Bereiz ditzagun, beraz, modu ezberdin hauek, eta Kodeak aipatzen dituen beste batzuk:

#### ***1.-Onartze soila edo inbentario-onuraz eginiko onarpena***

Onartze soila egiten badu deituak, jaraunspena *ultra vires hereditatis* jasotzen du, hau da, aktibo eta pasibo guztia, kausatzailearen zor guztien erantzunkizunarekin. Jaraunseak dagoen bezala jasoko du jaraunspena eta jasotakoarekin zein bere ondare propioarekin jasan beharko ditu jaraunspenaren zorrak. Inbentario-onuraz onartzeak, ordea, *intra vires hereditatis* onartzea suposatzen du, hots, jaraunseak zorren erantzunlea izango dela baina bere erantzunkizuna mugatuz. Bakarrik erantzungo du zor hoiengatik aurrean jaso duen ondarearekin, berea ikutu gabe.

## **2.-Onartze soila esanbidez edo isilbidez burutu daiteke:**

(1) Berariazko aipamenez (esanbidez): *expresa es la que se hace en documento público o privado* (Kzeko 999.2. art.). Idatziz egin behar da; ahozkoak, nahiz lekukoen aurrean egin, ez du baliorik. Idatzia, esaterako, dokumentu publikoa izan daiteke, notarioak, agintari judizialak edo gobernuko agintariak emandakoa, edo pribatua. Ez du egon behar horretara zuzendutako dokumentu batean ere; bestelako egintza jasotzera zuzendutako dokumentu batean ager daiteke onarpena.

(2) Berariazko aipamenik gabe (isilbidez): *tácita es la que se hace por actos que suponen necesariamente la voluntad de aceptar, o que no habría derecho a ejecutar sino con la cualidad de heredero* (Kzeko 999.3. art.). Jaraunspenera deituak egindako egintzetatik ondoriozta daiteke haren onartzeko borondatea; edo jaraunseak bakarrik egin ditzakeen egintzak egiten baditu, onartu duela ulertzen da. Bi suposamendu horietako batean sartzen diren egintzek isilbidez onartzea baieztatzen dute. Egintza horiek zehazteko orduan, honako interpretaziozko arau hau izan behar da kontuan: *los actos de mera conservación o administración provisional no implican la aceptación de la herencia, si con ellos no se ha tomado el título o la cualidad de heredero* (Kzeko 999.4. art.). Kasu horietan ez dago isilbidezko onarpenik, kontserbaziozko egintzak direlako, hala nola, zorrak eta zergak ordaintzea, errentak kobratzea, konponketak egitea, uzta jasotzea eta saltzea, ondasunak gordailuan jartzea eta abar. Hala ere, zenbait egintza egiteak zalantza sortzen du ia onartu den ala ez erabakitzeko; esate baterako, *abintestato* oinordetzan jaraunse izatea eskatzen bada edo zergaren likidazioa eskatzen bada. Jurisprudentiak argitzen ditu banan-banan horrelako kasuak, eta, zalantzazko kasuetan, bertara jo behar da irtenbidea aurkitzeko irizpideen bila (*vid.* AGE 1996/7/12 [RAJ 5887] eta Kataluniako Auzitegi Nagusiaren epaia 1996/1/29 [RAJ 6248]).

**3.-Delazio-eskubidea lagatzen bada,** ulertzen da isilbidez onartu dela jaraunspena. Kode Zibileko 1000. artikulua biltzen ditu suposamenduak: *entiéndese aceptada la herencia: 1. Cuando el heredero vende, dona o cede su derecho a un extraño, a todos sus coherederos o a alguno de ellos. 2. Cuando el heredero la renuncia, aunque sea gratuitamente, a beneficio de uno o más de sus*

*coherederos. 3. Cuando la renuncia por precio a favor de todos sus coherederos indistintamente; pero, si esta renuncia fuere gratuita y los coherederos a cuyo favor se haga son aquellos a quienes debe acrecer la porción renunciada, no se entenderá aceptada la herencia.* Norbaitek bere delazio-eskubidea lagatzen badu, uste izango da jaraunspena onartu duela eta ondoren lagatu duela jadanik ondarean duen eskubidea; alegia, onartzeko eskubidea bakarrik ezin da lagatu.

ENZOE 1996/2/5: “La denominada renuncia traslativa no implica propiamente una renuncia, sino una cesión de derechos que, precisamente para ser cedidos, han de ser previamente adquiridos”.

**4.-Zigor moduan; legeak onartutzat hartzen du jaraunspena:** los herederos que hayan sustraído u ocultado algunos efectos de la herencia, pierden la facultad de renunciarla, y quedan con el carácter de herederos puros y simples, sin perjuicio de las penas en que hayan podido incurrir (kzeko 1002. art.). Ez da isilbidez onartzen, *ex lege* baizik. Kasu horretan, gainera, inbentario-onuraren arabera onartzeko aukera ere galtzen da eta onartze soila egiteko aukera bakarrik gelditzen da. Antzeko suposamenduetara ere aplikagarri izango da analogiaz.

**5.-Kaduzitatez,** Kodeko 1005. eta 1018. artikuluko kasuetan.

## **IV.-DELIBERATZEKO ESKUBIDEA**

Kode Zibileko 1010.2. artikulua jasotzen du deliberatzeko eskubidea: *también podrá pedir la formación de inventario antes de aceptar o repudiar la herencia, para deliberar sobre este punto.* Deituak deliberatzeko eskubidea eskatuz gero, inbentarioa egin beharko da Kode Zibileko 1013. eta hurrengo artikuluei jarraituz.

Inbentarioa egiteko eskatzeko epeari dagokionez, jaraunspena onartu edo zapuztu aurretik eskatu behar dela ezartzen da; horrenbestez, jaraunspena erreklamatzeko akzioa preskribatu arte luzatzea eska daiteke. Kodeko 1016. artikulua, hain zuzen ere, zera dio: *podrá éste (el heredero) aceptar (...) con el derecho de deliberar, mientras no prescriba la acción para reclamar la herencia.* Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dira Kode Zibileko 1014. eta 1015. artikulua aurreikusitako suposamenduak:

(1) 1.014. artikulua zera dio: *el heredero que tenga en su poder los bienes de la herencia o parte de ellos y quiera utilizar (...) el derecho de deliberar, deberá manifestarlo al Juez competente para conocer de*

*la testamentaría, o del abintestato, dentro de diez días siguientes al en que supiere ser tal heredero, si reside en el lugar donde hubiese fallecido el causante de la herencia. Si residiere fuera, el plazo será de treinta días. En uno y otro caso, el heredero deberá pedir a la vez la formación del inventario y la citación a los acreedores y legatarios para que acudan a presenciarlo si les conviniera. Pziko 52.4. artikulua zehazten du epaile eskuduna nor izango den.*

(2) 1.015. artikulua, berriz, honako hau ezartzen du: *cuando el heredero no tenga en su poder la herencia o parte de ella, ni haya practicado gestión alguna como tal heredero, los plazos expresados en el artículo anterior se contarán desde el día siguiente al en que expire el plazo que el Juez le hubiese fijado para aceptar o repudiar la herencia conforme al artículo 1005, o desde el día en que la hubiese aceptado o hubiera gestionado como heredero.*

Kode Zibileko 1019. artikulua finkatzen du erantzuteko epea: *el heredero que se hubiese reservado el derecho de deliberar, deberá manifestar al Juzgado, dentro de treinta días contados desde el siguiente al en que se hubiese concluido el inventario, si acepta o repudia la herencia. Pasados los treinta días sin hacer dicha manifestación, se entenderá que la acepta pura y simplemente.* Beraz, eskatzaileak erantzuten ez badu, onartze soila egiten duela ulertuko da eta ez inbentario-onuraren arabera. Aldiz, soilik onartzen duela esaten badu, horrek ez du esan nahi geroago inbentario-onuraren arabera onartzea eska ez dezakeenik. Horregatik doktrinak argi azpimarratzen du, inbentario-onura ez dela, berez, onarpen mota bat. Izan ere, jaraunsearen erantzunkizuna mugatzeko tresna da, eta behin onarpen soila egin eta gero ere eska daitekeena.

Gehiengoak deliberatzeko eskubideari ez dio funtsa handirik ikusten, batez ere inbentario-onuraren arabera onartzeko aukera egonik; izan ere, praktikan formalitate berdinekin funtzionatzen dute eta abantaila berak dituzte. Horregatik, inbentario-onuraren arabera onarpena egiten da, baina deliberatzeko eskubidea gutxitan eskatzen da.

## **V.-INBENTARIO-ONURAREN ARABERA ONARTZEA**

---

Deliberatzeko eskubidea eta inbentario-onuraren arabera onartzea batera arautzen dira. Biek, berez, antzeko helburua dute: deituari ondareen nahasketa komeni zaion edo ez erabakitzea eta jaraunspeneko zorren aurrean jaraunseak duen erantzunkizuna mugatzeko aukera izatea. Kodeak honako printzipio hau ezartzen du: kausatzailearen eta jaraunsearen ondareak nahasi egiten dira honek

jaraunspena onartzen duenean eta, ondorioz, jaraunsleak jaraunspenaren zorren erantzule izan behar du, bere ondare osoarekin erantzunez. Hori gerta ez dadin eta erantzukizuna jaraunspeneko ondasunetara mugatzeko, inbentario-onuraren arabera onar daiteke jaraunspena.

Kode Zibilak jaraunspena onartzearekin lotzen du inbentario-emaizta jakitea; baina bereizita ere joan daitezke; alegia, lehenik onartu jaraunspena eta gero eskatu inbentario-emaizta. Izaeraz, erantzukizuna mugatzeko ahalmena da, eta egikari daiteke jaraunspena onartzeko momentuan edo geroago (cfr. κzeko 999., 1005. eta 1015. art.ak).

Kode Zibileko 1007. artikuluz gain, 1010.1. artikulua ere jasotzen du eskubide hori: *todo heredero puede aceptar la herencia a beneficio de inventario, aunque el testador se lo haya prohibido*. Han adierazten denez, jaraunse orok, hala testamentuzkoak nola legezkoak, badu erantzukizuna mugatzeko ahalmena. Jaraunsleak bat baino gehiago badira, bakoitzak du ahalmena askatasunez egikaritzeko. Ahalmena testamentuz debekatzen bada, debekua ez jarritzat joko da. Testatzaileak ezin du legearen gainetik pasa puntu honetan.

Inbentario-onuraren arabera onartzen dela adierazi egin behar da espreski eta garaiz, eta inbentarioa egiteko eskatu. Zenbait kasutan, hala ere, adierazi beharrik ez dago: jaraunse Estatua bada (κzeko 957. art. eta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legeko 20.1. art.), jaraunspena behartsuei utzi bazaie (κzeko 992.3. art.) eta guraso-boterearen erregimenaren kasuan (κzeko 166.2. art.).

**Adierazteko moduari** dagokionez, kontuan izan behar da ea Espainiar Estatuan egiten den edo atzerrian. Espainiar Estatuan egiteko, Kode Zibileko 1011. artikulua zera dio: *la aceptación de la herencia a beneficio de inventario podrá hacerse ante Notario, o por escrito ante cualquiera de los Jueces que sean competentes para prevenir el juicio de testamentaría o ab intestado*. Prozedura Zibilari buruzko Legeko 52.4. artikuluan zehazten da epaile eskuduna nor izango den: kausatzaileak hiltzean zegokion egoitzako epailea. Atzerrian egiteko, berriz, Kodeko 1012. artikulua honako hau ezartzen du: *si el heredero a que se refiere el artículo anterior se hallare en país extranjero, podrá hacer dicha declaración ante el Agente diplomático o consular de España que esté habilitado para ejercer las funciones de Notario en el lugar del otorgamiento*.

Adierazpena egin ostean, **inbentarioa osatu** beharko da: *la declaración a que se refieren los artículos anteriores no producirá efecto alguno si no va precedida o seguida de un inventario fiel y exacto de todos los bienes de la herencia, hecho con las formalidades y dentro de los plazos que se expresarán en los artículos siguientes*

(κzeko 1013. art.). Ondoren, inbentario zehatza egiteko arauak ematen ditu Kode Zibilak.

Lehenik, eskatzeko **epeari** dagokionez, 1016. artikulua jasotzen du arau orokorra: *si no se hubiere presentado ninguna demanda contra el heredero, podrá éste aceptar a beneficio de inventario (...), mientras no prescriba la acción para reclamar la herencia*. Kasu berezi gisa honako hauek ezartzen dira:

(1) Jaraunspenaren edukitza deituari badagokio, lehen aipatutako 1014. artikulua; edukitzak benetakoa izan behar du, eta izaeraz ez da txit zibila, oraindik jaraunse ez baita.

(2) Interpelaziorik balego edo isilbidez onartu badu, lehen adierazitako 1015. artikulua.

Kode Zibileko 1014.2. artikuluko hitzak bere horretan hartuz, inbentarioa egin behar da, eta, gainera, **hartzekodunak nahiz legatudunak deitu behar dira** epailearen aurrean inbentario-onura eskatzen bada. Aitzitik, suposamendu orotan egin beharreko kontua da, bestela inbentarioa egitea luza baitaiteke nahi adina eta Kode Zibileko 1017. artikulua baliorik gabe utzi.

**Formari** dagokionez, epailearen aurrean egin behar bada eskaera, inbentarioa ere beraren aurrean egin beharko da. Bestetan, notarioaren aurrean egin daiteke. Kodeko 1017. artikulua zehazten du inbentarioa egiteko epea: *el inventario se principiará dentro de los treinta días siguientes a la citación de los acreedores y legatarios, y concluirá dentro de otros sesenta. Si por hallarse los bienes a larga distancia, o ser muy cuantiosos, o por otra causa justa, parecieren insuficientes dichos sesenta días, podrá el Juez prorrogar este término por el tiempo que estime necesario, sin que pueda exceder de un año*.

Inbentarioaren **edukiak** zehatza izan behar du; alegia, oinordetzako eskubide eta ondasun guztiak jasoko ditu (κzeko 1013. art.). Kode Zibilak aktiboa bakarrik aipatzen du: *todos los bienes de la herencia* (1013. art.); *bienes, derechos o acciones de la herencia* (1024.1. art.). Halere, zorrak kitatzeko eta jaraunseak oinordetza administratzeko jardueran duen erantzukizuna garbi uzteko, beharrezkoa izaten da pasiboa ere jasotzea. Inbentarioa egin eta gero deituak onartzen ez badu, ez da beharrezkoa berriz beste bat egitea: *el inventario hecho por el heredero que después repudie la herencia, aprovechará a los sustitutos y a los herederos ab intestato, respecto de los cuales los treinta días para deliberar y para hacer la manifestación que previene el artículo 1019, se contarán desde el siguiente al en que tuvieren conocimiento de la repudiación* (κzeko 1022. art.).

Bada suposamendu bat **inbentariarik egin gabe** inbentario-emaitzaren arabera jaraunspena onartzen duena: *el que reclame judicialmente una herencia de que otro se halle en posesión por más*



*de un año, si venciere en el juicio, no tendrá obligación de hacer inventario para gozar de este beneficio, y sólo responderá de las cargas de la herencia con los bienes que le sean entregados* (κzeko 1021. art.). Kasu horietan, uste izaten da arazoak epaiketan argitu direla eta zein ondasun eta obligazio eman behar diren ere zehaztu direla.

Inbentario-onuraren arabera onartzeko aukera emanaz, jaraunslari bere erantzukizuna mugatzeko eskubidea ematen zaio. Baina, zenbait suposamendutan, eskubide hori kendu egiten zaio **zigor moduan**. Deituak izapideen eta interesdunen oinarrizko bermeak larriki urratzen baditu, zigortu egiten da egindakoa. Eta, hala:

(1) Lehen aipatutako Kodeko 1002. artikulua honako hau dio: *los herederos que hayan sustraído u ocultado algunos efectos de la herencia, pierden la facultad de renunciarla, y quedan con el carácter de herederos puros y simples, sin perjuicio de las penas en que hayan podido incurrir.*

(2) Kodeko 1018. artikulua, berriz: *si por culpa o negligencia del heredero no se principiare o no se concluyere el inventario en los plazos y con las solemnidades prescritas en los artículos anteriores, se entenderá que acepta la herencia pura y simplemente.*

(3) Kodeko 1024. artikulua, azkenik: *el heredero perderá el beneficio de inventario: 1. Si a sabiendas dejare de incluir en el inventario alguno de los bienes, derechos o acciones de la herencia. 2. Si antes de completar el pago de las deudas y legados enajenase bienes de la herencia sin autorización judicial o la de todos los interesados, o no diese al precio de lo vendido la aplicación determinada al concederle la autorización.*

Inbentario-onuraren arabera onartzeak honako **eragin** hauek sortzen ditu jaraunslaren alde:

(1) **Erantzukizuna mugatzea**: jaraunslak kausatzailearen zorrak ere jasotzen ditu, baina, legeak emandako ahalmena egikaritzuz, ez du erantzungo bere ondarearekin (κzeko 1003. art., *a contrario*).

(2) **Jaraunspenak ondare banandua osatzen du**, Kode Zibileko 1023. artikulua zera baitio: *el beneficio de inventario produce en favor del heredero los efectos siguientes: 1.º El heredero no queda obligado a pagar las deudas y demás cargas de la herencia sino hasta donde alcancen los bienes de la misma. 2.º Conserva contra el caudal hereditario todos los derechos y acciones que tuviera contra el difunto. 3.º No se confunden para ningún efecto, en daño del heredero, sus bienes particulares con los que pertenezcan a la herencia.* Arau horrek argi uzten du zein helburu duen inbentario-emaitzaren arabera onartzeak: ondare-nahasketa ekiditea.

(3) Bestalde, 1025. artikulua zera dio: *durante la formación del inventario y el término para deliberar **no podrán los legatarios demandar el pago de sus legados.***

(4) **Jaraunspena administraziopean jartzen da** (kzeko 1026. art.).

(5) **Jaraunspena kitatu egin behar da** (kzeko 1027-1031 eta 1033. art.ak).

(6) Kitatu ostean, administratzaileak kontuak emango ditu eta **jaraunseak jaraunspena eskuratuko du** (kzeko 1032. art.).

## **VI.-JARAUNSPENA ZAPUZTEA**

Jaraunspena zapuzten denean, jaraunspenera deituak egiten duena da alde bakarreko borondatea adieraztea. Horren arabera, eta legez zehazten den moduan, oinordekoa ez izateko borondatea azaltzen du. Beraz, uko egiten dio jaraunse edo legatadun izateari; teknikoki ez da zerbaiti uko egitea, ez eskuratzeko borondatea adieraztea baizik (*omissio adquirendi*).

Hasteko, oinordetza mota kontuan hartuta, honako hau da arau orokorra: *el que es llamado a una misma herencia por testamento y abintestato, y la repudia por el primer título, se entiende haberla repudiado por los dos. Repudiándola como heredero ab intestato y sin noticia de su título testamentario, podrá todavía aceptarla por éste* (kzeko 1009. art.).

Gero, oinordeko motaren arabera, norbait jaraunse izatera deitzen bada eta zapuzten badu dei hori, zapuzte horrek ez ditu hartzen jaraunspenetik eskubideak jasotzeko beste moduak (legatua eta senipartedunaren hobekuntza). Alegia, jaraunse izateari uko egiteak ez du baliorik gabe uzten **legatadun** izateko deia: *el heredero, que sea al mismo tiempo legatario, podrá renunciar la herencia y aceptar el legado, o renunciar éste y aceptar aquélla* (kzeko 890.2. art.); eta **seniparteak** bere eraentza bereziari jarraitzen dio. Ondorioz, oinordetzan eskubidea duten besteak deituko dira zapuztutako zatira. Bestalde, legatua zapuzteari buruz, honako araua ezartzen du Kodeko 890.1. artikulua: *el legatario, de dos legados, de los que uno fuere oneroso, no podrá renunciar éste y aceptar el otro. Si los dos son onerosos o gratuitos, es libre para aceptarlos todos o repudiar el que quiera.*

Zapuzteko borondatea azaltzeko formari dagokionez, Kodeko 1008. artikulua zera zehazten du: *la repudiación de la herencia deberá hacerse en instrumento público o auténtico, o por escrito presentado ante el Juez competente para conocer de la testamentaria*

*o del ab intestato*. Artikulu hori bat dator 1280.4. artikuluekin, hor dokumentu publikoan jaso behar diren egintzak adierazten baitira. Epailearen aurrean zapuzteko, idatzi bat aurkez daiteke borondatezko jurisdikzioan, eta, gero, berriz berretsi epailearen aurrean; kontentziosoko prozeduran ere zapuztu daiteke. Notario aurrean egindakoa izaten da dokumentu publikorik erabiliena. Dokumentu kauto edo zalantzarik gabeko agiri bidez ere zapuztu daiteke, esate baterako, judizioan egindako adierazpena autoetan jaso.

Zapuzteko adierazpena askatasunez egiten da, baina badu muga bat: hartzekodunen kaltetan egiten bada, horiek onar dezakete jaraunspena. Hain zuzen, Kodeko 1001. artikulua honako hau dio: *si el heredero repudia la herencia en perjuicio de sus propios acreedores, podrán éstos pedir al Juez que los autorice para aceptarla en nombre de aquél. La aceptación sólo aprovechará a los acreedores en cuanto baste a cubrir el importe de sus créditos. El exceso, si lo hubiere, no pertenecerá en ningún caso al renunciante, sino que se adjudicará a las personas a quienes corresponda según las reglas establecidas en este Código*. Ez da akzio pauliarra, ez baita eskatzen maularik egotea, ezta akzio subrogatzailea ere, ez baitira zordunaren ordezi ari (cfr. kodeko 1111. art.). Eskubidea izaeraz legezkoa da, eta hartzekodunek ez dute inor ordezkatzeko ez inoren negozioerik kudeatzeko (AGE 2003/5/30). Zapuzketa egon aurretik, kreditu-eskubidea duten hartzekodunek bakarrik dute eskubide hori, baldin eta zordunak zapuzten bada jaraunspena: ez bada ez onartzen ez zapuzten, hartzekodunek interpelazioa egin dezakete (kodeko 1005. art.). Oinordetzan, parte hartzen dute beren kredituak estali bitartean eta ez dira jaraunsele izango. Oinordetza kitatzeko, administrazioko zereginetan hartuko dute parte; nahikoa ondasun badaude eta kobratzeko modurik badute, kobratu eta amaituko dute beren parte hartzea. Izan ere, teknikoki, jaraunseleak eskuratzen ditu jaraunspeneko ondasunak, bere zorrak estali arte. Akzioak lau urtean preskribatzen du, Kodeko 1299. artikulua araberako egintza juridiko baten eraginkortasuna inpugnatzen baita.

## **VII.-ONARTZEKO                      ETA                      ZAPUZTEKO** **GAITASUNA**

Kode Zibileko 992.1. artikulua ezartzen du arau orokorra: *pueden aceptar o repudiar una herencia todos los que tienen la libre disposición de sus bienes*.

Arazoak honako kasu hauetan azaltzen dira:

(1) **Emantzipatu gabeko adin-txikikoa**: onartu, guraso-boterea dutenek onartu beharko dute. Dena den, doktrinan, zenbaitek uste

dute onartze soila egiteko baimen judiziala behar dela, ondarea zamatzeka ekar baitezake (κzeko 166.1. art.). Jaraunspena zapuzteko, berriz, 166.2. artikulua zera dio: *los padres deberán recabar autorización judicial para repudiar la herencia o legado deferidos al hijo. Si el juez denegase la autorización, la herencia sólo podrá ser aceptada a beneficio de inventario. No será necesaria autorización judicial si el menor hubiese cumplido dieciséis años y consintiere en documento público (...)*. Tutoretzapekoei dagokienez, Kodeko 271.4. artikulua zera aitortzen du: *el tutor necesita autorización judicial (...) para aceptar sin beneficio de inventario cualquier herencia, o para repudiar ésta o las liberalidades*; defendatzaile judizialari ere tutoretzari buruzko arau hori aplikatuko zaio.

(2) **Emantzipatutako adin-txikia:** onartu, inbentario-onuraren arabera onar dezake, bere ondarea ez duelako arriskuan jartzen; baina, onartze soila egiteko, gurasoen edo kuradorearen adostasuna beharko du. Zapuzteko, berriz, jaraunspena aparteko balioa duen gauza bada, ezin dio uko egin bere kabuz (κzeko 323. art.).

(3) **Ezgaituei** buruz, lehen aipatutako tutorearen muga kontuan izan behar da. Gainera, Kode Zibileko 996. artikulua zera adierazten du: *si la sentencia de incapacitación por enfermedades o deficiencias físicas o psíquicas no dispusiere otra cosa, el sometido a curatela podrá, asistido del curador, aceptar la herencia pura y simplemente o a beneficio de inventario*.

(4) Norbait **porrot egoeran eta konkurtsoan badago**, ondasunak xedatzeko askatasuna mugatzen zaio, borondatezkoa edo nahitaezkoa den bereiziz (κlko 401 eta 2. art.).

(5) **Ezkontzako ekonomia-eraentza irabazpidezko ondasunen sozietatea bada**, kontuan izan Kode Zibileko 995. artikulua: *cuando la herencia sea aceptada sin beneficio de inventario, por persona casada y no concurra el otro cónyuge, prestando su consentimiento a la aceptación, no responderán de las deudas hereditarias los bienes de la sociedad conyugal (cfr. κzeko 1367 eta 1397.3. art.ak)*.

Beste zenbait kasu berezi ere arautzen ditu Kodeak:

(1) **Behartsuen alde utzitako jaraunspena:** *la aceptación de la que se deje a los pobres corresponderá a las personas designadas por el testador para calificarlos y distribuir los bienes, y en su defecto a las que señala el artículo 749, y se entenderá aceptada a beneficio de inventario (κzeko 992.2. art.)*. Badirudi zapuzteko ahalmenik ez dela ematen. Arimaren alde utzitako jaraunspenari ere (κzeko 747. art.), trataera berbera emango zaio analogiaz.

(2) **Pertsona juridikoak onartzea edo zapuztea:** *los legítimos representantes de las asociaciones, corporaciones y fundaciones capaces de adquirir podrán aceptar la herencia que a las mismas se*

*dejare; mas para repudiarla necesitan la aprobación judicial, con audiencia del Ministerio público* (κzeko 993. art.). Sozietate zibilek eta merkataritzakoek ez dute zapuzteko mugarik. Konstituzioko 22. artikulua babesa izanda, horren arabera sortutako elkarteei muga jartzea zalantzazkoa da. Fundazioek, berriz, inbentario-onuraren arabera bakarrik onartzen dute eta doako titulu zamadunak eta jaraunspena onartzeko baimena behar dute (FLko 22. art.). Establezimendu publiko ofizialak Gobernuaren baimena beharko du jaraunspena onartzeko eta zapuzteko: *los establecimientos públicos oficiales no podrán aceptar ni repudiar herencia sin la aprobación del Gobierno* (κzeko 994. art.); *la institución hecha a favor de un establecimiento público bajo condición o imponiéndose un gravamen, sólo será válida si el Gobierno la aprueba* (κzeko 748 art.).

Berez, delazio-eskubidearen titularrak egikaritu behar ditu onartzeko edo zapuzteko ahalmenak. Hala ere, ahalmena egikari daiteke ordezkari bidez, horretarako behar den ahalordea eman bazaio. Zalantzarriagoa da hartzekodunek subrogazio-akzioaren bidetik (κzko 1111. art.) oinordetza onar dezaketela interpretatzea, bereziki beste bide batzuk badituztelako beren interesak defendatzeko (*cfr* κzeko 1001 eta 1005. art.ak).

Jaraunspena onartzeko gaitasunik ez duen norbaitek jaraunspena onartzen badu, kontratuen deuseztasunari buruzko arauak aplikatuko dira (κzeko 1301. art. eta hurrengoak). Bestalde, inbentario-onuraren arabera onar dezakeenak onartze soila egiten badu, erantzukizun mugatuarekin onartu duela joko da eta araurratze horren ondorioz sortutako kalteen erantzukizuna izango du.

## **VIII.-IRAKURGAIK**

### **1. Onartzeko, zapuzteko eta banatzeko gaitasuna**

LÓPEZ PÉREZ, Jerónimo (1999): “Reglas de capacidad personal en la aceptación, repudiación y partición de la herencia”, *Actualidad Civil*, 25. zb., 667. or.

### **2. Onartzea eta zapuztea**

DÍEZ-PICAZO PONCE DE LEÓN, Luis (1959): “La aceptación de la herencia por los acreedores del heredero”, *Anuario de Derecho Civil*, 127-197.

ROGEL VIDE, Carlos (1980): “Renuncia y repudiación de la herencia”, *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, 249. liburukia, 221-261 eta 323-354.

### **3. Inventario-emaitzaren arabera onartzea**

ALBALADEJO GARCÍA, Manuel (1995): “La llamada aceptación “entendida” a beneficio de inventario”, *Actualidad Civil*, 265-282.

## **IX.-KOMENTATZEKO TESTUAK**

AGE 2000/6/27 (RAJ 5909): En materia de adquisición de herencia, y con relación al régimen sucesorio del Código Civil, resulta incuestionable que rige el denominado sistema romano caracterizado porque no basta la delación hereditaria (apertura, vocación y delación) para ser titular del derecho hereditario, sino que además es preciso que el heredero acepte la herencia, lo que puede efectuarse de forma expresa o bien tácita. Producida la delación, el heredero –el llamado a heredar en concreto–, como titular del «ius delationis», puede aceptar o repudiar la herencia, pero en tanto no acepte, como se ha dicho, no responde de las deudas de la herencia, porque todavía no se produjo la sucesión –no es sucesor, sino sólo llamado a suceder–. Si acepta responderá incluso con sus propios bienes, salvo que la aceptación expresa tenga lugar con arreglo a lo prevenido para disfrutar del beneficio de inventario.

En el caso no se ha aceptado en forma expresa, ni tampoco de modo tácito. El art. 999, párrafo tercero, del Código Civil dice que la aceptación tácita es la que se hace por actos que suponen necesariamente la voluntad de aceptar, o que no habría derecho a ejecutar sino con la cualidad de heredero. Este precepto procede sustancialmente del Derecho Romano (Instituta, libro 2º, Título XIX, párrafo 7, *de heredum qualitate et differentia*, con arreglo al que «obrar como heredero es obrar como dueño, porque los antiguos decían herederos significando dueños»), y de las Partidas (la ley 11, Título VI, Partida Sexta, sobre «en que manera deue el heredero tomar la heredad», se refiere a que «se puede fazer por fecho: maguer non lo diga paladinamente», y se hace hincapié en la necesidad de la intención de ser heredero), y ha sido objeto de una profusa jurisprudencia (Sentencias, entre otras, 21 abril 1881, 8 julio 1903, 17 febrero 1905, 12 febrero 1916, 6 julio 1920, 23 abril 1928, 13 marzo 1952, 27 abril y 23 mayo 1955, 31 diciembre 1956, 8 mayo 1957, 31 marzo y 4 julio 1959, 16 junio 1961, 21 marzo 1968, 29 noviembre 1976 y, 14 marzo 1978, 12 mayo 1981, 20 noviembre 1991, 24 noviembre 1992, 12 julio y 10 octubre 1996, 9 mayo 1997, y 20 enero 1998, y doctrina de la Dirección de los Registros (Resoluciones de 25 mayo 1895, 21 mayo 1910, 21 enero 1993, 10 diciembre 1998, y 25 febrero 1999). La postura mantenida por la

doctrina recogida en las Sentencias de esta Sala y Resoluciones citadas es unánime en exigir actos claros y precisos que revelen la voluntad inequívoca de aceptar la herencia. Ha de tratarse de hechos que no tengan otra explicación, pues lo que importa es la significación del acto, en cuanto indica la intención de hacer propia la herencia y no de cuidar el interés de otro o eventualmente el propio para después aceptar. Son especialmente diáfanas en tal sentido las Sentencias de 15 junio 1982, 24 noviembre 1992 y 12 julio 1996.